[b] BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
543. zkia.
XIII. urtea
2005eko irailaren 23a




## Leizarpe Elkartea

# Historiaurreko ehiza teknikei hautsa kentzen

[ KANPOTARRAK ] FERNANDO RODRIGUEZ • [ KIROLA ] HAUNDIREN AURKEZPENA

# Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

Vamos al Euskaltegi Municipal, ¿te apuntas?



UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**
Nafarroa Enparantza 2 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

## 2005/2006 EUSKARA IKASTAROAK

**Euskalduntze maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntz Eskakizunak.**
**Iraupena:** Iraila-ekaina. **Matrikulaldia:** Irailaren 1etik 23ra.
**Ikastaro bereziak:** Guraso. Enpresak. EGA ikastaroa larunbatetan. Mintzapraktika. Hizkuntza eskakizunak (Osakidetza, Administrazioa, Hezkuntza). AISA (etorkinentzako ikastaroak). Ostalaritza.
**Autoikaskuntza zerbitzua: BOGA (On-line).**
**HABEren 1go eta 2. mailako azterketak euskaltegian bertan.**
**16 urtetik gorakoentzat Beka Sistema. Galde ezazu!!!**



# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# ZOZOAK BELEARI...



**UXUE ALBERDI**

*Einmal ist keinmal* dio atsotitz alemanak: behin gertatzen dena inoiz gertatu ez balitz bezala da. Milan Kunderak ere idatzi zuen: *zer balio du bizitzak bizitzeko egiten dugun lehen saiakera bizitza bera bada?*

Gustatzen zait ideia: saiatzeko jaiotzen gara eta lortu dugun edo ez jakin gabe hil. Hori bezain absurdua da bizitza.

Hala, kontzienteki bizitzeko, bizitza bat baino gehiago beharko genuke, eta bide ezberdinak probatzen joan. Horrela, benetan aukera onena zein den jakingo genuke. Errepikapenak emango lioke balioa bizitzari.

Gogoratu Andy Warholen hitzak, baina: *zenbat eta gehiagotan begiratu gauza berari, orduan eta hutsago eta hobeto sentitzen da bat. Pop Art*-aren mezu nagusienetako bat zen: errepikapenak balioa kentzen die gauzei.

Zer gertatzen da bikoteari egunero 50 aldiz *maite zaitut* esanez gero? Zer, telebistan egunero milaka hildako ikusita? Zer, egunero manifestazio bat eginez gero? Inpaktua, balioa galtzen dute.

Errepikapenetik ikasi behar al dugu, ba, ez errepikatzen? Mila bizitza bizi ostean ohartuko al ginateke lehenengoko ezjakintasuna dela bizitzari zentzua ematen dion gauza bakarra?

Ederra papeleta, e? Zozoak beti zozo. Agian hobe Kundera eta Warhol berriketan jarrita, ez?

**«Errepikapenak balioa kentzen die gauzei»**

UXUE

**«Norberak topatu edo eman behar dio zentzua bizitzari»**

IMANOL



**IMANOL LARRAÑAGA**

Trankil, berriketarako geu ere ez gara txarrak eta. Esan, ez dakit ezer esango dugun, baina jardutea gustatzen zaigu. Uxue, jakin al daiteke zerk bultzatu zaituen bizitzako ur sakonetara salto egitera? Zu ere harrapatu al zaitu opor osteko zorioneko sindromeak? Kar-kar! Bueno, toki pixka bat egiten badidazu, arropak kendu eta banoa zure atzetik.

Ez dakit zeini irakurri nion bizitzaren gainean gehiegi pentsatzen eta idazten dela. Denbora gehiegi pasatzen dugula bizitzari zentzua topatu nahian; nondik gatozen eta nora goazen pentsatzen. Eta, haren esanetan, bizitzak, berez, ez du zentzurik; norberak topatu edo eman behar dio zentzua bizitzari.

Akaso, antzerako zerbait pentsatuko zuten iazko Domu-santu egunaren bueltan Mutrikun Gau Beltza antolatzen jardun zutenek. Bizitzaren filosofia hiru berbatara ekartzeko gauza izan ziren. *"Hil arte, bizi!"* zioen jaietako kartelak. Sinplea eta erraza dirudi, ezta? Baina, ondo pentsatzen jarriz gero, ematen duena baino zailagoa da hil arte bizirik egotea. Ez dugu denok lortzen.

Agur esan aurretik zorionak eman beharko dizkizut, ezta? A, eta ez izan gustuko gauzak errepikatzeko beldurrik. Segi lasai idazten eta sariak pilatzen, sari bakoitzak bere balioa eta inpaktua dauka-eta. Zorionak!

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

> BIZITZA BEREAN HAINBAT BIZITZA, GIZON BATENGAN HAINBAT GIZON
>
> Giovanni Papini

## Nekazaritza ekologikoa

Eskutitz honekin BARRENen eginiko elkarrizketarekin sortu den nahaste-borrastea argitu nahi dut. Elkarrizketa oso laburtua zegoen, eta nire iritziz, erantzunak ez zeuden guztiz ondo interpretatuak.

Inondik inora ez da nire asmoa inoren etxea zikintzea, ezta inoren aurka joatea ere. Lan honekin dudan helburua, beste askok bezala, osasuntsuak diren elikagaiak eskaintzea da, nire kasuan elikagai ekologikoak alde batetik, eta bestetik, nolabait merkatu txikiei bizitza ematen jarraitzea.

Transgenikoekiko zera esan nahi nuen; Nekazaritza Ekologikoko zertifikazioa duten produktuek guztiz debekatua dutela inolako osagai, pentsu (animalientzat)... transgenikorik erabiltzea. Eta labela garestiagoa dela esaten duen erantzunean nik produktu finko bati buruz hitz egin nuen, baina ez erantzun gisa jarriko zutelakoan. Nik badakit ekologikoak normalean garestiagoak direla, produkzioa ere txikiagoa izaten baita, eta hauek zaintzea lan handiagoa delako. Gure dendan kanpotik datozen produktuetan nabarmentzen da diferentzia hau, baina ez hainbeste baserritik ekartzen ditugun barazkietan.

Horrenbestez, amaitutzat ematen ditut argitu beharrekoak. Norbaitek informazio, argibide edota arazoren bat baldin badauka etor dadila merkatura lasai asko hitz egitera.

**Argiñe Rubio 15396597-Y**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

**1.** Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
**2.** Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
**3.** Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
**4.** Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
**5.** Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.360 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK

• Herritar batek esan digunez, herrian komun publiko gutxi dago, eta daudenak oso egoera kaxkarrean daude: "Lehen Madalako parke azpian eta Leku Ederren ere bazeuden komun publikoak, baina momentu honetan Merkatu Plaza azpiko komunak eta bolatokikoak bakarrik ditugu herrian. Gainera, askotan ezin izaten da komunetara sartu ere egin: ateak ez dira ixten, argi gutxi daukate, ez da papelik egoten eta oso zikinak egoten dira. Elgoibarren ez dira komun publikoak batere zaintzen. Beste gauza batzuetarako dirua badagoela ikusten da. Hainbeste kostatzen al da pertsona bat komunen arduran jarri eta komunak txukun mantentzea?".



## TXALOAK



• Neska batek Txarriduna aurreko espaloian porlanezko hodiak jarri izana eskertu nahi du: "Jende askok Txarriduna aurreko espaloi gainean aparkatzen zuen autoa eta Bernardo Ezenarro kaleko bidegurutzetik ateratzerakoan ez zen ondo ikusten bidea libre zegoen edo ez. Porlanezko hodi hauei esker, ezin da bertan aparkatu eta askoz hobeto ikusten da bidea".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

THE END



Bokatak
Pintxoak – Plater konbinatuak
Basarte, 6 • ELGOIBAR • Tel.: 943 74 04 04

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estalidura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570



# URRUZUNOREN *luma*

## Badoa, badator

Potolo jaio zen egutegia geroz eta meharrago nabari dezaket egunetik egunera. Abuztuak ihes egin dio, badirela zenbait aste, eta horrekin batera kolore nabarragoz janzten hasi zaigu.

Tomatez eta piperrez jositako baratzak biluzten hasiak dira poliki-poliki; gauaren iluntasuna hozkaka ari zaio eguneko argiari; hutsik ziren Elgoibarko larunbat arratsalde ta gauak beren erritmoa arnasten hasiak dira; pinudiek perretxikoen hezetasun hatsa dariote; lantoki eta eskolek argiak piztu dituzte goizean goiz.

Baina ez etsi, lagun! San Migelak pasa arte ez baikara udazkenean murgilduko! Udara joan da baina eguzkiak energia asko dauka oraindik guri emateko!

Beraz, ez erantzi soinetik udako berotasuna eta borborra. Irriak eta saltsarako gogoak ez zaitzala baztertu bederen.

Eta udazkena? Bere jantzi politenekin agertuko zaigu, gogotsu; eta zu, erromantiko hutsa izaki, berataz disfrutatzen hasiko zara konturatzerako, beti ere irri eder hori gainean duzula.

***Sare Gurrutxaga***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### JUANJO NOGUEIRAS

MADIGAN´ S
IRISH PUB-EKO JABEA

**Berriz jaioko bazina...**

- **Ze lanbide nahi zenuke?**
Naturako dokumental egilea. Basabizitza, animaliak eta argazkilaritza gogoko ditut.
- **Munduko zein tokitan jaiotzea nahi zenuke?**
Euskal Herrian. Zehazki nire herrian, Bergaran.
- **Noren azalean bizi nahi zenuke?**
Konkretuki inorenean, baina pertsona askoren ezaugarriak niregan bildu edo izan nahi nituzke.
- **Gizona ala emakumea izan nahi zenuke?**
Gizona. Egiaren ohoretan emakumea izatea zailagoa da.
- **Famatua ala ez?**
Ez. Daukadan talentu batengatik balitz, agian, baina intimitatea altxor bat bailitzan gordetzen saiatuko nintzateke.
- **Edertasuna ala inteligentzia izan nahi zenuke?**
Inteligentzia. Edertasuna inteligentziaren bitartez lortu daiteke.
- **Maitasun bakarra betirako ala maitasun laburrak sarritan?**
Maitasun bakarra betirako.
- **Zer nahi zenuke aldatzea munduan?**
Aldatzea merezi duten gauzak aldatzea; gerrak, gosea, e.a. ezinezkoa edo oso zaila dela uste dut. Gizakiak gara azken finean eta ez dut giza izaeran sinisten. Hori bai, aldatzekotan norbere etxetik eta poliki-poliki hasi behar da.

## komikia

*Hil da gero... Porompompero*




Kokoe 030

## [AKORDATZEN NAIZ]



### FELISA BERGARETXE

1915an jaioa

# «Oporrak eta hegazkiña»

Ni ez nitzan oporretan juten. Bizi osua lanian pasau dot, batian ez bada, bestian, eta ez naukan oporretara iñora juteko aukerarik. Nagusittuta jun izan naiz oporretara, alaba ta suhiñakin, ta nere ahizpa ta bere alabakin. Isla Cristina eta Peñiscola aldian egon naiz azkenekoz. Frantzian ere egon naiz, baiña gaztetan ez, nagusittuta.

Lehenengo aldiz nere lehengusiña batekin probau naban hegazkiña. Ezkondu ostian izan zan. Bartzelonara jun giñan. Jun, autobusez egin gendun, eta bueltia abioian.

Askoz azkarrago! Eta oso gustora egin naban bueltia. Asko gustau jatan.

Gero, alabakin biajia kotxian egin gendun Benalmadenara, eta sekulako berua pasau gendun. Esan niuen holakorik ez nabala gehixago nahi, nik abioian nahixago nabala.



## [GURE BERBAK]

### Erderakadak (eta 3)

Aurrekuan esan gendun hiztegixan egitten zirala batez ere. Zer eratako jardunian egitten dan ere bereizi egin bihar da, jakiña: lagunartekuan edo jende aurrian formal samar berba egitterakuan, ez da eta gauza bera. Lehenenguan ez da bigarrenguan bezain zorrotz jokatu bihar, nere ustez. Erderakaden artian ere, badira maillak: batzuk sartuaguak daude gure hizkeran beste batzuk baiño; gure aittitta-amamak normal-normal erabiltzen dittuen berbak esan nahi dau tradiziotxo bat badaukala, eta ez dala gaur goizeko erderakada bat. Kontuz ibilli bihar genduke hiztegikuak ez diran erderakadekin: adibidez, POR KE eta era horretako menderagailluak ez dittugu bihar; nekez entzungo dogu, gaiñera, edadeko bat holakuak erabiltzen. Badittugu euskal ordaiñ jatorrak horretarako. Endemas, askotan erabiltzen dira gaillu hauek, zeregiñ gramatikala daukelako. Horregaittik dira argi ibiltzeko modukuak.

*- Ba... dira ... datorren juniuan etorriko dira berrogeta hamasei urte ezkondu giñala. Bodas de oro ere egiñ genduzen, oiñ lau-bost urte edo.*

*- Milla partidu ikusi dittut onak. Bat esateko, ba Elgoibarko Fermiñ, Gallastegikiñ, kontra un trio, Arriaran hermanos hirurak, Mondragoikuak.*

*- Batzuek egitten dabe hamendikan ezkondu kanpora, orra Azpeitti, Askoiti o ... Da horrek entzegida hartzen dabe hangua (hizkeria)*

*- Geuri berbetan eurak baldin badihardue, ba soltatze jakuz geuri ere, euren tipoko berbak. Baiña kontinuamente, ez.*

*- Jaixan da tokatzen zanian da, bien. Baiña astegunian da hola, ba eziñ izeten zan juan noiznahi Santaeskera.*

*- Ni autobusian gustora juaten naiz, eh? Baztarrak beittu, ta aber modifikaziorik egon dan, edo bestia edo...*

*Jesus Mari Makazaga*







LEIZARPE ESPELEOLOGI ELKARTEA

# AINTZINAKO EHIZA TEKNIKEI HAUTSA KENDUZ

***Gustatuko al litzaizueke sua metxero edo poxpolorik gabe pizten jakitea, historiaurrean gure arbasoek egiten zuten moduan? Eta bultzagailua edo uztaia eta geziak erabiliz nola ehizatzen zuten jakitea? Leizarpe Espeleologi Taldeak eskaintzen dituen aukeretako batzuk dira. Hamar kidek osatzen dute 1982. urtean sortu zen taldea eta beraietako batzuekin berba egin dugu historiaurrea, espeleologia eta beste hainbat gairen inguruan.***

Leizarpe espeleologia taldea da, baina azken urteetan eremua zabaldu eta haitzuloekin eta naturarekin zerikusia duten hainbat ekintza eskaintzen dute. “Espeleologia bakarrik egitea gogorra eta esker gutxikoa izan daiteke zenbaitetan, eta jendeak erreta amaitzen duenez, eskalada, mendia, edo historiaurrea lantzen hasi ginen, besteak beste” azaldu digute Asier Gonzalez, Ibon Sarasua eta Jose Ramon Sousa.



Leizarpeko kide batzuk Arkeologia esperimentala egiten dutela aipatu digute. “Gure arbasoek historiaurrean erabiltzen zituzten ehizarako teknikak eta tresnak gure eskuekin egiten edo erreproduzitzen saiatzen gara”. Aurrez ikerketa lana egin behar da historiaurreari buruzko liburuak irakurriz. “Horrela jakiten dugu erabiltzen zituzten tresnen ezaugarrien berri. Arkeologoek, indusketetan egiten duten lana hartzen dugu abiapuntutzat. Gu, beraien datuetan oinarrituz, errealitate hura ahal den era fidelenean erreproduzitzen saiatzen gara. Arkeologia mota osagarriak dira eta zientzilariak orain hasi dira gure lanaren garrantziaz jabetzen”. Bestalde, bizirik irauten kultura asko oso baliagarriak ei dira arkeologia esperimentalerako. “Amazoniako tribu asko historiaurrean edo harri aroan moduan bizi dira. Dena dela, ingurune eta klima ezberdinak direla aintzat hartu behar da”.

Tresna guztiak naturalki egin behar direla azpimarratu digute, “Inguratzen gaituen naturak eskaintzen dituen elementuak bakarrik erabili ditzakegu; egurra, harria, animalien hezur, tendoi, larru, pegamentu edo ehun naturalak”. Metodo natural hau jarraituz, elurretako gizonak, Otzik (bi alpinistek Italia eta Austria arteko mugan izotzetan aurkitutako momia), duela 5.000 urte zeraman larruzko jantzia egin dute eta baita bultzagailu, uztai, gezi, aizto eta beste hainbat arma eta tresna ere.

## Goi paleolitikoa

“Historiaurrea izugarri zabala da, baina guri Goi paleolitikoa interesatzen zaigu, K.a. 38.000. urtetik K.a. 9.000. urtera bitartean”. Goi Paleolitikoan "Homo sapiens sapiens" edo Cro-Magnon gizaki mota garatu eta Neanderthal galdu egin zen. Gizakiak harria eta hezurra gero eta trebetasun handiagoz lantzen ikasi zuen eta xehetasun handiko tresna fin eta txikiak egiteko gai izan zen: geziak, arpoiak edo jostorratzak larrua josteko, besteak beste. Artea ere landu zuten eta ugariak eta indar handikoak dira garai horretako pinturak; Madalen aroan koloreak erabili zituzten hormetan. Euskal Herrian Ekaingo kobazuloan aurkitu dira Madalen aroko aztarnak.

## Bultzagailua: armarik eraginkorrena

Goi Paleolitikoan (K.a 38.000. urtetik K.a. 9.000 urtera bitartean) bultzagailua izan zen ehiza tresnarik erabiliena. “Gure artean ez da batere ezaguna eta gehienek uztaiak eta geziak erabiltzen zituztela uste du, baina Ekaingo gure arbasoek bultzagailua erabiliz biziraun zuten. Gaur egun, Australiako aborigenek


Bultzagailua, Goi Paleolitikoan ehiza tresna erabiliena.


Uztaien aztarna zaharrenak K.a. 5000. urtekoak dira.

eta eskimalek bultzagailuka erabiltzen jarraitzen dute. Uztaien aztarnak, berriz, K.a 5.000. urtetik honakoak dira. Arma gehiago ere erabiliko zituzten; lantzak, egurrezko aiztoak, ondak, e.a. baina ez da hauen aztarnarik iritsi gaurdaino". Baso itxi eta malkartsuak nagusi ziren garaian ahuntzak, oreinak, basurdeak, basoilarrak eta faisaiak ehizatzen zituzten bultzagailuekin, "Bisonteak, zaldiak, orein adar zabalak eta antzerakoak ehizatu izan dira, baina denboran atzerago, glaziazio garaian ia". Gaur egun behar beste saiatu eta trebezia lortuz gero, basurdeak, untxiak edo oreinak ehiza daitezkeela bultzagailu edo uztai bat erabiliz ziurtatu digute, "oso zaila da, baina doitasun edo prezisio handiarekin oso indartsu jaurti daiteke 10-15 metrotara hurbiltzea lortuko bagenu. Ez dira jostailuak, armak, baizik. Gure arbasoek elur orein talde baten migrazio garaia aprobetxatuz 70-80 metrotara ere jaurti zitzaketela geziak bultzagailuarekin egiaztatu dugu".

Aintzinako Ehiza Tekniken Europako Txapelketaren proba bat jokatzen da Oreretan eta antzerako txapelketetara joanez asko ikasi dutela aitortu digute Leizarpeko kideek. "Informazioa eta lehengaiak trukatzen ditugu bertan. Txapelketetan estatubatuarrak nabarmentzen dira, batez ere, Wisconsin aldeko jendea. Europa mailan frantziarrak urte batzuk aurreratuago daude historiaurreko gai guztietan. Historiaurreari buruzko bi parke tematiko, oso interaktiboak, dituzte eta historiaurreko animatzaile tituloa ere badago han".

## Suaren bila



Historiaurreko mundu interesgarri hau elgoibartarrei hurbiltzea da Leizarpekoen helburuetako bat. Horretarako irteerak, ikastaroak eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko tailerrak antolatzen dituzte. "Ehiza, sua eta lanabesak lantzen ditugu tailerretan. Girotzeko, 20 minutuko filme bat erakusten diegu. Filmean K.a. 13.000. urtean Ekaingo kobazuloan bizi ziren giza ehiztarien bizimoduko bi egunen jarraipena egiten da. Ondoren, uztaiak, aiztoak, geziak, e.a. nola egin erakusten diegu. Haurrak ahozabalik geratzen dira ezerezetik, poxpolu eta metxerorik gabe, sua piztea lortzen dugunean. Suaren prosezua ikusgarria da. Bi modu daude sua sortzeko: egurrarekin bakarrik edo harriekin. Bi harri elkarren kontra joz atera daiteke txinparta. Harri bat suharria edo silexa izan behar da eta bestea pirita edo markesita. Txinpartetatik sua ateratzeko ardagai bat behar da. Guk pagoetan jaiotzen den onddo parasito bat erabiltzen dugu. Oso ohikoa da eta baserrietan aspalditik erabiltzen dute. Lehortu ostean erabiltzen da, baina goikoaldeko zati fin batek bakarrik balio du. Ia 4 urte eman genituen probaketetan, konturatu ginen arte".

## [ PROTAGONISTA ]



### MaialenOlazabal

Maialen Olazabal mendaroarrak Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Urruzuno Literatura Saria irabazi du, bertso idatzien atalean. Bere lana, eta gainontzeko lan irabazleak Sagastiberri izeneko bilduman kaleratuko dira. Elgoibar BH Institutuko ikasleek urtero hartzen dute parte lehiaketa honetan, eta sari desberdinak jaso dituzte. Aurtengoan Maialenek Poloniarako 10 eguneko bidaia eta bertan gastatzeko 250 euroko diru-poltsa irabazi ditu. Hau ez da izan Maialenek jaso duen lehenengo saria, eta ziur ez dela azkena izango. Zorionak!

## [ NOTIZIA ]

# Udalak ezkutuan jokatu duela salatu du Elgoibar Bizirik Plataformak

Elgoibar Bizirik Herri Plataformako kideek Udalak ez duela garbi jokatu azaldu zuten joan zen asteleheneko prentsaurrekoan. Beraien hitzetan, "Udalak ezkutuan egin ditu komeni zaizkion negoziazioak. Bere helburua azokako saltzaileak banatzea izan da, eta lortu egin du. Momentuz 5 saltzailek sinatu dute Sigmako obrak bukatu bitartean Plaza Txikira joango direla, eta ondoren Sigmara". Gainontzekoek elizako arkupeetan jartzen dute postua aldarrikapen modura.

### Azoka Plaza Handian

Urtebete pasatu da merkadilloaren arazoa hasi zenetik, eta oraindik, Elgoibar




Bizirik Plataformakoek azoka Plaza Handian kokatzearen aldeko apustua egiten dute. Bigarren aukera bezala ikusten dute Plaza Txikia, baina horretarako lurrazpiko aparkaleku bat egitea proposatzen dute. Azkenik herritarren nahia betetzeko eskatzen diote Udalari.

## [ ZENBAKIA ] 28.045

Ekainaren 15etik irailaren 18ra arte egon dira Mintxetako igerilekuak zabalik, eta guztira 28.045 erabiltzaile izan dira bertan. Hilabeterik jendetsuena uztaila izan da 15.324 erabiltzailerekin. Egun batzuetan 1.000 lagunetik gora ibili dira igerilekuetan. Iazko denboraldian 30.000 erabiltzaile inguru izan ziren.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Mugikortasunaren Astearen barruan, atzo, irailak 22, kotxerik gabeko eguna izan zen. Kalera atera eta argazki hau egin genuen. Ohiko ostegunetan baino auto gutxiago zegoen arren, kotxerik gabeko eguna izateko asko falta zitzaion. Leku batzuetan aparkatzea galerazi zuten eta honek herrigunean izaten den trafiko arazoa arindu egin zuen apur bat. Argi dago gaur egungo gizartean jendeak ezinbestekoa duela autoa eguneroko bizimodua aurrera eraman ahal izateko.

# Deba Arroko XXXI. Perretxiko Lehiaketa hilaren 25ean izango da



Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta, Deba Arroko XXXI. Perretxiko Lehiaketa ospatuko da datorren igandean, hilaren 25ean, Plaza Handian. Lehiaketa honetan eskualdeko 15 urtetik beherako haur guztiek hartu dezakete parte.

### Aurten bildumarik ez

Gure mendi eta basoek jasaten duten presio handia eta hilabete hauetan egon ohi diren perretxiko lehiaketa eta erakusketa kopurua oso altuak direla kontuan izanik, aurtengo lehiaketan ez dira perretxiku bildumak sarituko. Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Elkarteak egindako gomendioei jarraituz, mota bakoitzetik perretxiku bakarra aurkezteko eskatzen zaie partehartzaileei.
Epaimahaia Aranzadi Elkarteko kideek osatuko dute, eta ondorengo irizpideak izango dituzte kontuan: Perretxiko desberdin guztiak puntuatuko dira, perretxikoek egoera onean egon behar dute, eta sorta berezietako perretxikoek gainontzekoak baino puntu gehiago jasoko dute. Sari banaketa eguerdiko 13:00etan hasiko da. Perretxikoak 14:00ak arte egongo dira ikusgai eta orduarte ezin izango dira hartu.

## Deba Ibaiari buruzko agendak banatu ditu Udalak




Elgoibarko Udalak Deba ibaiari buruzko informazio zabala eskaintzen duen eskola-agendak banatu ditu Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleen artean. Besteak beste, ibaiaren zati ezberdinak, landaretza eta hegazti-faunari buruzko informazioa dator agendan. Datu hauekin batera, ikasleek uraren zikloaren funtzionamentua ezagutu ahal izango dute, eta produktu natural hau alferrik ez erabiltzeko hainbat aholku jasoko dituzte. Ekimen honen bitartez, ikasleek pasa den ikasturtean Eskola Agenda 21en garaturiko lana ezagutzea bideratu nahi du Udalak.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Alzheimerraren Eguna

Irailaren 21ean ospatu zen Alzheimer gaixotasunaren mundu mailako eguna. Hori dela-eta, AFAGIk (Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senideen elkartea) mahai informatiboak jarriko ditu bihar larunbata, irailak 24, goizeko 11:00etatik 14:30era King-Kongen eta Plaza Handian.

### Fernando Bert epaituko dute

Fernando Bert preso elgoibartarra epaituko dute urriaren 3an eta 4an Parisen. Bertara joateko autobusa egongo da. Txartelak ohiko lekuetan jarri dira salgai. Informazio gehiago 676980461 telefonoan.

### Aldaketak Euskaltegien beka sisteman

Euskaltegietan euskara ikasten dihardutenek Udalaren dirulaguntza edo bekak jasotzeko ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: %80tik gorako asistentzia izatea, ikastaroa bukatzea eta ikastaroari gutxieneko aprobetxamendua ateratzea. Baldintza hauek betetzen dituztenei matrikularen %50a itzuliko zaie. Sistema berri honi buruzko informazio gehiago Udaleko Euskara Sailean edota Euskaltegietan lortu daiteke. Bestalde, AEK eta Udal Euskaltegiek matrikulazio epea irekita dutela gogorarazi nahi dute.

### Kilometroak 2005

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak urriaren 2an Arrasaten ospatuko den Kilometroak jaialdirako autobusa antolatu du. Interesatuek Elgoibarko Izarrak Ubitarte 4an daukan lokalean eman dezakete izena irailaren 30a baino lehen. Elkarteko bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 7 euro. Autobusa goizeko 10:00etan aterako da Sigmako zubitik, eta itzulera arratsaldeko 20:30ean izango da.

Azken 15 urteotan bikoiztu egin da Euskal Autonomi Erkidegoko ume eta gaztetxoen obesitatea.

# Ume eta gaztetxuok ondo jaten al duzue?

**ALAZNE PEREZ**
Ikaslea
9 urte



“Nik ondo jaten dut, denetarik jatea gustatzen zait. Barazkiak ez ditut oso gustuko, porruak patatekin jaten ditut, baino nahiago dut lapikokoa jatea.”

**NORA ISASTI**
Ikaslea
9 urte



“Ez dakit, niri gauza batzuk ez zaizkit gustatzen. Barazki purea asko gustatzen zait, baina arraina ez dut jaten, eta fruituetatik madaria bakarrik gustatzen zait.”

**BEÑAT IRIONDO**
Ikaslea
11 urte



“Bai, niri behintzat dena gustatzen zait. Makarroiak dira nire jatekorik gustukuena, baina barazkiak, babak, arraina... denetarik jaten dut. Gozoki gutxi jaten dut.”

**ENEKO ITURBE**
Ikaslea
15 urte



“Bai, tomatea kenduta dena gustatzen zait. Askotan txutxeriak jateko gogoa edukitzen dut, baina badakit asko loditzen dutela eta gutxi jaten saiatzen naiz.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Imajinatzen al duzu kotxerik gabeko egun bat?

**BAI %44**

“Imajinatu bai, imajina dezaket, baina kontua da imaginazioa baino gehiago ametsa dela gaur egun kotxerik gabe eguneko eginkizunak burutzea. Benetan deseatzen dudan ametsa da.”

**EZ %66**

“Gaur egun gauzak dauden bezela egonda, EZ. Tonto-usaiñ bat iruditzen jata holako egun sinbolikuak egittia, gero benetan ez badebe Herri Agintiak horren aldeko apusturik egitten.”

Datorren asterako.... Gero eta gegiago berba egiten da ETAren balizko suetenaz.

**ETAk laster suetena adieraziko duen esperantzartik bai?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7744 zenbakira**

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARI
ETA ZERBITZU ELKARTEA

# Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak gonbidatzen zaitu

## TXANKAKUAREN V. FERIA



**Irailak 24, larunbata Foruen Plazan**

11:00etatik 14:00etara

- Produktu / zerbitzuen **erakusketa eta salmenta**.
- Haurrentzako parkea.
- **TXU-TXU trena**.
- **TXANKAKUAren VISA TXARTELAren** stand-a. Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.

13:30etan

- **600 euro** saritan.

## TXANKAKUAREKIN SAGARDO EGUNA

**Urriak 15, larunbata Nafarroa Plazan**

Zatoz TXANKAKUArekin aire librean SAGARDOTEGIko ohiko giroaz gozatzera:

- **TRIKITILARI** eta **BERTSOLARIEK** jaialdia girotuko dute.
- Txikientzat **TXU-TXU trena**.
- Helduentzat **SAGARDOA** eta **TXORIZO PINTXOAK** egongo dira.



*Anima zaitez, zain gauzkazu!*

**Babesleak:**

Elgoibarko Udala

Eusko Jaurlaritza
Industria, Merkataritza eta Turismo saila


GARATE
Jantzi - Denda
San Bartolome, 13
Tel.: 943 74 11 29
ELGOIBAR
Erribera, 3
Tel.: 943 86 09 96
ZUMAIA


Ferpi
Modak
San Bartolome, 38
Tel.: 943 74 08 15
Emakumeentzako
moda


G & M
Jantzidenda
San Bartolome, 23
Tel.: 943 74 46 17


CASA ASTIGARRAGA
Errosario, 16-18
Tel.: 943 74 32 68
Zuretzako neguko kirol jantziak guk ditugu!
GYS SPORT


CASA ASTIGARRAGA
GYS SPORT
OUT LESS
Zapatilak
25€
Motxilak
10€
Txandala
30€
Jausoro Plaza
Tel.: 943 74 43 86
ESKOLARA BUELTA!


Arrieta
San Bartolome, 18
Tel.: 943 74 08 49
Hortensia
majestic
Roset
CAROCHE
MAFECCO
2005


SKANDALO
San Bartolome, 9 • Tel.: 943 74 35 95


Laztana
zure haurtxoaren denda
Antonio Arrillaga, 14 • Tel.: 943 74 00 91
BABYBJÖRN
bébé confort
absorba
JANE
Inglesina
RÖMER
Quinny
TRAMA
BEBECAR


Sara
Errosario 14
Tel.: 943 74 35 55


LITTLE KISS
karkizano
San Frantzisko, 14
Tel.: 943 74 05 49


IRIONDO
KIROLAK
Marka onenak!
Mendi eta kalerako moda
San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56


Julene
JULENE
San Frantzisko, 43 • Tel.: 943 74 42 53

EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"



San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88

azkue

ARGAZKIAK

MOMENTUAN inprimatu zure argazki digit@lak




...Paper fotografikoan *bizitza guztirako*

ostarku

Santa Ana, 5 • Tel.: 943 74 06 46


Xigortze
OPARIDENDA
San Bartolome, 7
Tel: 943 74 43 41
San Roke, 7
Tel: 943 74 34 01


Luvik
oinetakoak
Dansi
San Bartolome, 28
Tel.: 943 74 43 45


Sagas
Zapatadenda
garvalin
GIOS EPPO
chiquitin
Falky
San Bartolome, 17
Tel.: 943 53 13 50


Iriondo Iriondo Iriondo Iriondo
Santa Ana 4 eta 6
Tel.: 943 74 12 34


MULTIOPTICAS
UZURI
konbinatu2
2
2 betaurreko, 98 eurotan kristalak barne,
MULTIOPTICAS
San Frantzisko, 21 ELGOIBAR · Tel.: 943 74 03 59
Ostolaza, 7 DEBA · Tel.: 943 19 21 92


Udazkena 2005
Guk ditugu udazkenerako eskaintzarik onenak
TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24
E-MAILA: e1@viajesbilbaoexpress.com
www.viajesbilbaoexpress.com
FORUEN ENPARANTZA, 3 • 20870 ELGOIBAR
Viajes Bilbao Express
Bilbao Express Bidaiak


PRADA
eyewear
Ikus Optika
Betaurreko osoak
Umea
Gizonezkoa
Emakumezkoa
65€
Jose Artetxe, 10
Tel.: 943 15 75 74
AZPEITIA
San Bartolome, 10
Tel.: 943 74 37 34
ELGOIBAR


GOIARA
Lurrindenda
Negurako aurpegi tratamenduak ditugu!
San Bartolome, 23 • Tel.: 943 74 11 33


Inmobiliaria Studio
Siglo XXI
Proiektuak eta erreformak
Sukalde eta bainurako altzariak
Pisu eta lonjen salmenta eta alokairua
San Bartolome, 16 behea
ELGOIBAR
Tel. 943 742 306
Juan Guisasola, 8 behea
EIBAR
Tel. 943 204 264


ZAZPI
INFORMATIKA
PDA
Ordenagailua
Portatila
PSP
Kamara digitala
Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxa: 943 74 37 87


LEIGAR
ACTIVA
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Era guztietako elektragailuak.
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54
TVC-LCD- PLASMA • MP3- HOME CINEMA • DVD GRABAGAILUA- DVD


Softlan
analisia & programazioa
Zure etxerako edo lanerako ekipoak, portatilak, zerbitzariak, periferikoak, kontsumigarriak eta zerbitzuak.
DELL
(Munduko lehen fabrikatzailea)
17" LCD
Antonio Arrillaga, 1
www.softlan.biz
Tel.: 943 74 81 05


Lanbroa
Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak
PLATER KONBINATUetan aukera zabala
Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06


Kala
loradenda
San Frantzisko, 24
Tel.: 943 74 45 16


LA BODEGA
ERRETEGIA
ETXEKO BEREZITASUNAK
Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak
EGUNEKO MENUAK
ematen ditugu
Pedro Muguruza, 22 · Tel. 943 742 500


IDARRAGA
KAFEAK
Olaso, 15 (55-E lokala) • Tel.: 943 74 05 33


ZELETA BARAZKIAK
NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA
▪ Landareen produkzioa ▪ Laborantza kontrola
▪ Eskuz eginiko aukeraketa ▪ Banaketa
▪ Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
EUSKAL BASERRI
ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19


ELGOIBAR
San Bartolome, 35 • Tel.: 943 74 03 45

AIASTIA AUZOKO JAIAK

# Artzai Txakur Txapelketa, Idi-Demak eta Haritzen erakustaldia izango dira

Gaur hasi eta hilaren 29ra bitartean luzatuko dira Aiastia (San Migel) auzoko jaiak. Gazteen Eguna ospatuz hasiko dituzte jaiak gaur, hilak 23. Azken urteetako ohiturari jarraituz, poteoa bizikletan, gazte afaria, disko festa eta goizaldera izaten den "streaptease" famatua antolatu dituzte auzoko gazteek. Zapatu honetan, hilaren 24an, Artzai Txakur Txapelketa izango da eguneko ekintza nagusia (17:00). Euskal Herriko Arraza Libreko Finala jokatuko da Aiastiako zelaietan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Bederatzi artzain izango dira lehian. Jose Ramon Orbegozo Arantzazuko artzaia eta "Alai" txakurra dira egungo Euskal Herriko Txapeldunak eta tituloa defendatzera etorriko dira. Jose Antonio Arrillaga sanmigeldarra izango du aurkari gogorrenetakoa. Egungo Gipuzkoako txapelduna da elgoibartarra eta Euskal Herriko txapeldun ere izandakoa da. Aiastian bi txakurrekin; "Lagun" eta "Txuri", lehiatuko da. Gauean, Haritz Euskal Dantzari Taldeak erakustaldia eskainiko du Murkaikupe frontoian (22:30). Domekan, Idi-demak dira ekintzarik aipagarriena. Garro (Etxebarria); Artadialde (Berriatua) eta Erleteren (Itziar) idi pareak arituko dira deman. Irabazleak 750 euro, garaikurra eta mantak irabaziko ditu. Azkenik, irailaren 29an, San Migel Egunean, meza nagusia ospatuko da goizeko 11:00etan eta iluntzean auzotarren afariarekin amaituko dira ekintzak aurtengoz.



## IMHk 800 enpresei galdetu die ikastaroak euskaraz egin nahi al dituzten

Enpresek beraien langileentzat eskatzen dituzten ikastaroak euskaraz egin ahal izateko baliabideak ezartzen ari da Makina Erremintaren Institutua. IMHko hizkuntza politikak 2005-2015 urtetarako euskalduntze prozesua eratu zuen eta hainbat ekintzen barruan, formazio eta enpresa munduen arteko zubi lanak egitea da helburuetako bat. Heziketa iraunkorreko atalean, IMHko irakasle talde batek eskolak euskaraz eman ahal izateko formazioa jaso du urtean zehar eta pixkanaka, ikasgai batzuren materiala euskarara itzultzen ari dira. Irailean, IMHk harremana duen Euskal Herriko enpresei galdetegia zuzendu die, ekimen hau adierazi eta galdetzeko ea beraien langileentzako ikastaroak euskaraz jaso nahi dituzten. Jada badira enpresa batzuk interesa agertu dutenak eta IMH beraiekin jarriko da harremanetan beraien beharrak bideratzeko.



## "Ahozko Jarduna Hobetzeko Proposamenak" liburua kalean da

Badihardugu Euskara Elkarteak "Ahozko Jarduna Hobetzeko Proposamenak" liburua kaleratu du. Bertan, Ahozko hizketan egiten diren akats ohikoenak jasotzen dira eta hauek zuzendu ahal izateko ariketak ere proposatzen dira. Liburua guraso, begirale, irakasle edo umeekin ibiltzen den edozeini zuzenduta dago, batez ere, material erabilgarria eskaintzeko asmoz. Hizkerari dagokionez, euskara batuan izango dira sarrera, aurkibide eta azalpen gramatikal guztiak. Adibideak eta proposamenak, berriz, herri-hizkeretan (eredu jasoan), ariketak ahozko jardunetik jaso baitira eta herri bakoitzerako moldatu, bai hizkera aldetik, bai herri bakoitzeko erreferentziak erabilita (plaza izenak, toki izenak, lexikoa, e.a). Dagoeneko prest daude zenbait herritako ariketak. Elgoibarkoak honako helbide honetan daude eskuragai: http://badihardugu.com/argitalpenak/euskara_hobetuz

Liburuaren egileak Estepan Plazaola, Karmele Agirregabiria eta Karmen Bikuiña izan dira. Jesus Mari Makazaga elgoibartarrak gainbegiratzaile lanak egin ditu Koldo Zuazorekin batera.



# FERNANDO RODRIGUEZ

## KOLONBIA [HEGO AMERIKA]

# «Bisitan bakarrik itzuliko nintzateke Kolonbiara»

FERNANDO RODRIGUEZ IAZKO GABONETAN IRITSI ZEN ELGOIBARRERA, BERE AMA ETA ANAIA TXIKIAREKIN. BOST URTE LUZE EGON ZEN BERE AITA IKUSI GABE, ETA AZKENEAN, FAMILIA GUZTIA ELKARTU DIRA BERRIRO ERE. 17 URTE EGIN BERRIAK, BERA IZAN DA ETXEKO GIZONA AITA EGON EZ DEN BITARTEAN. LUZE EGON GARA BERAREKIN KONTU KONTARI, ETA GAUZA POLITAK KONTATU DIZKIGU.



**Noiztik zaude Elgoibarren?**

Iazko Gabonetan iritsi nintzen, abenduaren 23an. Denbora gutxi daramagu hemen, baina jende askok hemen jaiotakoa naizela uste du. Eskolan irakasleak nongoa nintzen galdetu zidanean "Elgoibarkoa" erantzun nion euskaraz. Harrituta gelditu zen Kolonbiarra nintzela eta duela 9 hilabete etorri nintzela esan nionean.

**Euskara ikasten ere hasi zara, beraz. Zer moduz moldatzen zara?**

Hona iritsi nintzenean hasi nintzen euskara ikasten. Oso hizkuntza zaila zela esaten zidaten, eta hala da, baina nik ikastea nahi nuen. Poliki-poliki gauzak ikasiz noa. Zenbakiak, asteko egunak eta hilabeteak badakizkit. Ulertzeko nahiko ondo moldatzen naiz, baina hitz egiteko arazoak ditut oraindik, mingaina trabatu egiten zait askotan eta gaztelerara jotzen dut. Baina denbora daukat, eta ikasteko gogoa ere bai, beraz, ikasiko dut.

> [«Euskaldunok gehiago pentsatzen duzue etorkizunean»]

**Familiako guztiak etorri al zarete?**

Nire anaia txikia eta amarekin etorri nintzen. Nire aita hemen zegoen orduko. Duela bost urte etorri zen Kolonbiatik, eta Espainian toki desberdinetan ibili da. Euskal Herrira duela pare bat urte iritsi zen.

**Arazorik izan al duzue hona etortzeko?**

Hasieran nire aitak paperak lortu zituen arte egoera ez zen erraza izan. Ondoren, gu hona ekartzeko baimena lortu behar zen, eta oso luze jo zuen. Dokumentu pilo bat bidali behar izan genituen alde batetik bestera. Papel guztiak onartu zizkigutela esan



zidatenean ezin nuen sinetsi. Astebeteko epea geneukan Kolonbiatik ateratzeko. Dena presaka egin behar izan genuen: jantziak erosi, bidai-txartelak hartu... baina oso pozik egin genuen, nire aitarekin elkartzeko irrikitan geunden-eta.

**Bost urte aitarik gabe, nola moldatu zarete?**

Oso gogorra izan zen. Nik 11 urte nituen aita Espainiara etorri zenean, eta nire anaiak hiru hilabete. Ez zuen aita ezagutzen, eta hazi ahala bere aita ni nintzela uste zuen. Gaixotu egin nintzen estresak jota. Aita egon ez den bitartean ni izan naiz etxeko gizona. Nire ama oso harro dago nirekin. Kolonbian delinkuentzia handia dago, eta aitarik gabe oso erraza da bide okerretik jotzea. Zorionez, ni bide zuzenetik joan naiz. Ikasketak bukatu nituenean bi domina eman zizkidaten.

**Zer moduz hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo, hemengo jendea oso jatorra da. Hasieran itxita nengoen, beldur nintzen, eta ez nuen inorekin hitz egiten. Baina poliki-poliki kalean jendea hitz egiten hasi zitzaidan, eta lagun oso onak egin ditut.

**Zertan diharduzu hemen?**

Eibarko Armeria Eskolan Goi Mailako Modulu bat egiten ari naiz, Produkzio Elektronikoaren Garapena. Beti gustatu izan zait aparailuei tripak ateratzea, ezin naiz geldirik egon. Aparailuak konpondu edo betirako puskatzen duten horietakoa naiz. Nire aita ere Mc Gyver bezalakoa da, eta berarengandik datorkit.

**Unibertsitatera joateko asmorik?**

Kolonbian baneukan asmoa, eta hemen ere saiatu nintzen, baina ikasketak balioztatzeko arazoak izan nituen. Orain dena zuzen daukat, eta modulu hau amaitutakoan ez badut lanik aurkitzen Unibertsitatera joaten saiatuko naiz.

**Etorkizunean zer egitea gustatuko litzaizuke?**

Lehenik eta behin ikasketak amaitu. Gero, lana aurkitu, etxe bat erosi eta familia bat osatzea gustatuko litzaidake.

**Itzuliko al zinateke berriz Kolonbiara?**

Bai, baina bisitan. Epealdi baterako bakarrik joango nintzateke. Bizitzeko nahiago dut Euskal Herria. Elgoibar asko gustatu zait, eta etorkizunean ere hemen bizitzea gustatuko litzaidake.




## KOLONBIA

- Hiriburua: Bogotá
- Azalera: 1.141.748 km²
- Biztanleria: 42.300.000 (2.000)
- Dentsitatea: 37 km²ko
- Bizi itxaropena: 69 urte
- Hazkunde demografikoa: %1,6
- Langabezia: %15,6
- Gobernua: Errepublika



*Ezkerreko argazkian Fernando bere ama eta anaiarekin. Eskumakoan bere aita.*

### 2005-2006 DENBORALDIKO HAUNDIREN AURKEZPENA

# Talde erdia berritu ostean 10 aurpegi berri ditu Haundik



Talde erdia, 10 jokalari, berrituta hasi du aurtengo denboraldia Haundik. Asier Olaizola entrenatzaileak 20 jokalari izango ditu bere aginduetara 3. mailan. Asier Arenas eta Mikel Elkoro elgoibartarrek futbola laga zuten iaz, Ibai Gonzalezek eta Jaboba Arrasatek taldea ustea erabaki zuten eta sei jokalari ez berritzea erabaki zuen entrenatzaileak. Jokalari berriei dagokienez, Iker Arrillaga atezaina jubenil mailatik igo da lehen taldera eta David Moraisek beste horrenbeste egin du erregional mailatik. Ez dira lehen taldera iritsi diren elgoibartar bakarrak, Zarautzen jokatzen zuen Iker Martinez ere fitxatu baitute. Guztira 7 dira taldeko jokalari elgoibartarrak. Entrenatzailearen iritziz, aurrelariek izango dute lan gogorrena, azken urteotan taldeko goleatzaile onena izan den Jagoba Arrasatek lagatako hutsunea bete beharko baitute eta hark eginiko lan ona ahaztarazi "Hirugarren mailako pitxitxia izan zen iaz Jagoba 24 golekin eta Bigarren B mailara igo den Portugaletek fitxatu du. Maila horretan 20 taldetik 10 euskaldunak dira eta hirugarren mailako jokalari euskaldun onenak fitxatzen dituzte. Horregatik, agian, 3. maila oso orekatua ikusten dut. Durango eta Portugalete igo ostean, Beasain eta Sestao dira faborito nagusiak eta gainontzekoak hor ibiliko gara borrokan. Gure helburua maila mantentzea izango da". Horretarako defentsa sendotu eta gol gutxiago jaso beharko dutela uste du Olaizolak, "iaz hirugarren talde goleatzaileena izan ginen 55 golekin, baina gol gehien jaso genituen laugarren taldea ere bai 52 golekin". Ligako lehen lau partidutatik bat irabazi eta hiru berdindu ditu Haundik, baina hilabete erabakiorra dutela gainean argitu digu entrenatzaile getariarrak; "hil honetan Eibar B, Ondarroa eta Lagun-Onak taldeen aurka jokatuko dugu, gure gerrako taldeak guztiak. Emaitza onak lortuz gero talde indartsuagoen aurka lehiatzeko morala hartuko genuke eta gure benetako mailaren berri izan".

## FITXAKETA BERRIAK



**David Morais**
21 urte
Elgoiar



**Unai Agirretxea**
22 urte
Berriatua



**Eneko Cortadi**
25 urte
Zestoa



**Alex del Rio**
26 urte
Zarautz



**Ekaitz Arrieta**
23 urte
Lezo



**Iñaki Duñabeitia**
25 urte
Elorrio



**Iker Arrillaga**
19 urte
Elgoibar



**Jon Ruiz**
19 urte
Donostia



**Iker Martinez**
21 urte
Elgoibar



**Jon Arruti**
21 urte
Zarautz

ZONALDEKO EHIZA TXAPELKETA

# Imanol Garaizabalek 2. postua lortu zuen



Zanbranan (Araba) jokatu zen zonaldeko Ehiza Xehe Txapelketan 2. postuan sailkatu zen Imanol Garaizabal ehiztari elgoibartarra "Te" txakurraren laguntzarekin. Gipuzkoako txapelduna den Iñigo Guisasola eibartarrak jantzi zuen txapela 6 eper, faisai bat eta 2 galeper ehizatuta. Garaizabalek 5 eper eta 2 galeper bota zituen. Hirugarren postuan Elgoibarko Ehiza Txapelketa irabazi berri duen Txomin Rogel sailkatu zen 3 eper, faisai bat eta 2 galeper botata. Jubenil mailan La Union Elkarteko Adur Juaristi izan zen abilena eta emakumeen artean Amaia Urra mendaroarra nagusitu zen. Eibar, Elgoibar eta Mendaroko ehiztariek parte hartu zuten eta lehen lau sailkatuek Gipuzkoako Ehiza Txapelketan parte hartuko dute urriaren 2an, Zanbranan bertan dagoen "El Castillo" ehiza barrutian.

## Lagunakeko pilotariek ezin izan zuten denboraldia garaipen batekin hasi



Gipuzkoako Elkarteen arteko Pilota Txapelketaren aurtengo edizioa martxan da jadanik. Hain zuzen ere, joan den zapatuan jokatu zuten estraineko partidua Lagunak Pilota Eskolako ordezkariek. Jubenil mailako bikoteak Hernanin jokatu zuen denboraldiko lehen partida. Azken emaitza ez zen elgoibartarren aldekoa izan, 22 eta 16 galdu baitzuten, baina iaz fin aritu ziren pilotari elgoibartarrak txapelketa honetan eta ez da itxaropenik galdu behar. Gaur, hilak 23, izango dute lehen garaipena lortzeko parada Ikastolako frontoian, 22:00etatik aurrera. Olaldeko pilotariak izango dituzte aurrez aurre.

## Lau elgoibartar Getaria-Zarautz igeri trabesian

San Inazio Egunean, uztailaren 31n ospatu zen Getaria-Zarautz igeri trabesian ateratako argazki hau ekarri digute protagonistek BARRENeko erredakziora. Sona handiko proba da eta 1.000 lagunetik gora ausartu ziren Getariako portutik Zarautzeko hondartzara dauden 2.800 metroak esku eta zangoen indar soilaz egitera. Amaia Revert (47:46); Jose Angel Agirre (58:32); Iñigo Barrenetxea (1:01:01) eta Joseba Konde (1:22:56) dira argazkian ageri diren igeri zaletu elgoibartarrak.



## Squasha eta frontoi txikiaren erreserbak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du 2005 urteko azken hiruhilabeterako Olaizaga kiroldegiko Squasha edo frontoi txikia erreserbatzea nahi dutenen artean, irailaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, Olaizaga kiroldegian, egingo dela ordutegien zozketa.

## Sabel Dantza ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak Sabel Dantza ikastaroa antolatu du Olaizaga kiroldegian. Ikastaroa urriaren 5ean hasiko da eta saioak asteazkenetan izango dira, 19:00etatik 20:30etara. Interesa duenak Olaizaga kiroldegian eman dezake izena.

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- Elgoibarko enpresak **tornurako frestzailea** behar du.
Erref. 162005009378
- Bergarako enpresak **ingeles irakaslea** behar du.
Erref. 162005009494
- Bergarako enpresak **dantza moderno eta garaikideetarako irakaslea** behar du.
Erref. 162005009489
- Oñatiko enpresak **gerentea** behar du. Erref. 162005007799
- Azpeitiko enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162005009427
- Azkoitiko enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162005009447
- Azkoitiko enpresak **makinak margotzeko langilea** behar du.
Erref. 162005009445
- Elgoibarko tabernetan gauez edari alkoholdunen promozioa egiteko **azafata** behar da.
Erref. 162005009409
- Arrasateko enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005008744
- Arrasateko enpresak **medikua** behar du. Erref. 162005009226
- Elgoibarko enpresak **ingeles irakaslea** behar du.
Erref. 162005009098
- Zumaiako enpresak **garbitzailea** behar du. Erref. 162005009504
- Eibarko enpresak **goi mailako diseinu-ingeniaria** behar du.
Erref. 162005009546
- Elgoibarko enpresak **arotza** behar du. Erref. 162005009658
- Elgoibarko enpresak **delineatzailea** behar du.
Erref. 162005009639

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- Neska haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 680 526 614
- Neska nagusiak edo haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 686 578 228
- Neska gaztea orduka lan egiteko prest. ☎ 638 716 987
- Neska gaztea umeak zaindu edo garbiketatarako prest. ☎ 649 77 80 11
- Mutil gaztea baserrian, kamarero, nagusiak zaindu... lanerako prest.
☎ 680 91 88 93
- Neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna. ☎ 943 53 15 53
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest.
☎ 943 74 22 01 (Araceli)
- Mutila edozein lanetarako prest.
☎ 676 623 843
- Neska gaztea lanerako prest: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak...
☎ 630361395/943172896
- Mutil gaztea lanerako prest: igeltseroa eta enfofratzailea.
☎ 630361395/943172896
- Bikotea enpresa edo jangela garbiketarako prest. Esperientzia industria garbiketan. ☎ 669 22 35 27
- Mutila eskaintzen da harategian lan egin edo beste edozein lanetarako.
☎ 615 00 83 46
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.
☎ 699 609 190
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 690701118
- Gizonezkoa edozein lanetarako prest: atezain, igeltsero... ☎ 697 431 326
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu, kamarera... ☎ 697 431 326
- Tituludun soldadorea eta eraikuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. ☎ 943531745/661225149
- Mutila lanerako prest: eraikuntzan, baserrian, nagusiak zaintzen...
☎ 685 73 06 04
- Emakumea garbiketa lanetarako prest: etxeak, elkarteak, portalak...
☎ 639 42 34 93

### ESKAINTZA

- Ikastolako jantokian haurrak zaintzeko pertsonala behar da. Euskara ondo dakiena eta puerikultura edo begirale titulua duena. Interesatuek irailaren 27a baino lehen deitu Ikastolara.
☎ 943 74 44 41
- Kamareroa behar da. Neska zein mutila. Autoa beharrezkoa.
☎ 943 20 27 27
- Asteburu eta jaiegunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da.
☎ 943 74 02 41
- Ileapaintzailea behar da arratsaldez lan egiteko. ☎ 943 74 43 88
- Kamareroa behar da.
☎ 615723480
- Kamareroa behar da.
☎ 943741600
- Pertsona bat behar da asteburuetan sukalderako. ☎ 615723480
- Kamareroa behar da barran lan egiteko. ☎ 652778260/652778210
- Elgoibarko tabernarako sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako.
☎ 943 74 10 12
- Ingelesezko irakaslea behar da akademiarako. ☎ 680 37 36 76
- Iturgintzarako langilea behar da. Euskalduna eta gidabaimenarekin.
☎ 650 586 144
- Neska euskalduna behar da lau urteko umea zaintzeko. ☎ 619 18 78 09

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Pedro Migel Urruzuno 8an. Igogailua eta berogailuarekin.
☎ 943 53 10 03
- Pisua salgai Plaentxin.
☎ 943 85 29 99
- Etxea salgai Pedro Muguruzan.
☎ 964491022/677780680

### ALOKAIRUA

- Atiko duplex-a alokairuan edo salgai Marbellan. Igerilekuarekin, hondartzatik gertu. ☎ 943 74 06 28/699179872
- Pertsona bat behar da pisua osatzeko.
☎ 610 45 85 52
- Apartamentua alokatzen da Benidorm-en. ☎ 943 74 06 28 (gauez)
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 91 49 04 (Rosa)
- Etxea alokatzen dut Plaza Txikian. Berritua. ☎ 685 72 85 55
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo inguruetan. ☎ 670 814 035
- Etxea alokatzen da Mendaron. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
☎ 660 042 159
- Pertsona gaztea behar da Gasteizen pisua osatzeko. 220 euro+gastuak.
☎ 609 22 83 83
- Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 690 701 118
- Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguruetan.
☎ 658 740 787
- Pisua alokatzen da Torreviejan. Igerilekua, hondartzatik 600 metrora.
☎ 628 584 535
- 5 logelako etxea alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Itsasora eta mendira bistak.
☎ 677780680/964491022
- 3 logelako pisua alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Igerilekua, mini-golf, toki berdeak...
☎ 677780680/964491022

## [ GARAJEAK ]

- Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ 620 13 59 58
- Garaje itxia salgai Pista Beltzean.
☎ 943 74 27 78
- Garajea alokatzen da Pista Beltzean.
☎ 943 74 33 52
- Leku Ederren 4. solairuan garaje irekia salgai. 21.000 euro. ☎ 660 042 159
- Garaje itxia salgai Madalan. 28 m$^2$
☎ 646 50 28 66
- Garaje marraduna alokatzen da Santa Ana kalean. ☎ 630 21 12 02

## [ SALEROSKETAK ]

- Umeentzako kotxesilla bikoitza salgai. Urdin iluna, Graco markakoa. 70 euro. ☎ 943 74 43 38
- Peugeot 206 autoa salgai. 1400cc. 75cv. gasolina. 46.000km. ITV 2007. SS-BJ. 5.500 euro. ☎ 943 74 43 10
- Martxan dagoen "Todo a 100" negozioa salgai jubilazioagatik.
☎ 943 74 35 36/675 71 77 04
- Ford Fiesta autoa salgai. Egoera onean. SS-2107-AM.
☎ 652 725 839
- 4 gurpileko prenatal kotxesilla, bidaiatzeko maxi-cosi (0-9kg.), eta neskarentzako moises-a salgai. Berriak. Euritarako burbuila opari. 210 euro.
☎ 667 36 82 34
- Play Station 2 salgai. Jokuekin.
☎ 685 75 93 15
- Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa. (Aulkia, grupo 0, zakuak, burbuilak...) ☎ 636129543
- Kitarra klasikoa behar dut. Ikasten hasi berria naiz. ☎ 605 77 53 57
- Play Station 2arentzat jokuak salgai. 3 pack. ☎ 627 88 92 59/943 74 23 63 (Javi)
- Eritetxeko ohea, gurpildun aulkia eta airezko koltxoia salgai. Egoera onean.
☎ 627 43 23 61
- Kitarra elektrikoa salgai, Jackson Performer eta anplifikadorea. Berriak. 400 euro. ☎ 690 614 486
- Kotxerako JBL etapa salgai, 6 kanale ditu. 10 hilabete, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ 646 56 36 56 (18:00etatik aurrera)

## [ PARTIKULARRAKK ]

- LH eta 2. ESO bitarteko ikasleei klase partikularrak ematen dizkiet.
☎ 652 71 59 11
- Irakaslea behar da DBH 3. mailako ikasleari partikularrak emateko.
☎ 699 820 820

## [ BESTERIK ]

- Mutilak hartuko nituzke etxean lo egiteko. Arropak garbitzen ditut.
☎ 679 84 33 32 (21:00-22:00)
- Elgoibarko Caritas-ek mantak eta izarak behar ditu. Premia handia dago.
☎ 943 74 15 09
- Iraila hasieran artilezko zapatilatxoa galdu nuen irlandes aurrean, txuri-urdina
☎ 943 03 04 34
- San Rokeko zubian haur baten praka eta kamiseta aurkitu ditut poltsa baten barruan. Udaltzaingoan daude.
- Uztailean erlojua galdu nuen. Urre kolorekoa. San Bartolome eta San Frantzisko artean. Balore sentimentala.
☎ 625 70 22 12

# [ZORIONAK]



Zorionak **Giselle!** Gurasoen partez muxu handi bat.



Zorionak **Diego** igandean 5 urte egingo dituzulako. Ama, aita eta Paularen partez muxu handi bat.



Zorionak **Koldo** zure urte ondorenean etxekoen eta bereziki, emazte eta seme Beñat eta Ametsen partez.



Zorionak **Aitor** zure 6. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



23 urte pasa dira! zorionak eta muxu handi bat Ander eta Loinazen partez.



Zorionak **Kattalin** gaur zure eguna delako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Julio Cesar,** ama eta arrebaren partez. Muxu handi bat,



Zorionak **Nerea,** gaur 3 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Peio eta Manex** zuen lehenengo urtebetetzean. Maria eta Andrearen partez muxu asko.



Zorionak **Sara eta Nerea** zuen urtebetetzean. Muxu potolo bana familiako guztien partez.



Zorionak **Garazi eta Naro**! Zuen familiakoak.

## IKASTAROAK

**TAICHI, ARGAZKIGINTZA, GABONETAKO SUKALDARITZA ETA SUKALDARITZA HASTAPENA**

Azpeitiako Udalak, urritik abendura bitartean Taichi, Gabonetako sukaldaritza, argazkigintza eta sukaldaritza hastapenen inguruko ikastaroak antolatu ditu. Epea: irailak 20. Balioa: 28 – 48 euro bitartean. Ordutegia: Taichi-a goizez eta bestelakoak arratsaldez. Tokia: Zapo Txoko Gaztelekua (Azpeitia). Informazioa: 943 157161

**IRRATI TAILERRA**

Errenteriako Villa Kultur Guneak irrati tailerra antolatuko du astearte eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara. Baldintzak: 16 urtetik aurrera. Balioa: 30,00 euro hilero. Epea: irailak 30. Informazioa: 943 449634

## BEKAK

**KANPOKO GIZATALDE ETA EUSKAL ETXEEN EREMUAN ESPEZIALIZATZEKO BEKAK**

Eusko Jaurlaritzak Kanpoko Euskal Gizatalde eta Euskal Etxeen eremuan espezializatzeko 5 bekarako deialdia antolatu du. Baldintzak: 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen administrazio-egoitza EAEn izatea edo Euskal Etxeren bateko bazkide izatea, Unibertsitateko goi-mailako titulazioa, 30 urte izatea gehienez eta aurretik inoiz ez izana EAEko Aurrekontuetatik ordaindutako beka baten onuraduna. Iraupena: 12 hilabete, beste 12 hilabetez luza daite. Dirulaguntza: 22.500 euro Ordezkaritzen alorrean eta 15.000 euro Kanpo Harremanetarako alorrean. Epea: urriak 3. Informazioa: 945 017900

## LEHIAKETAK

**KALEKO X. PINTURA LEHIAKETA MENDARON**

Epea: irailak 25. Sariak: 1. saria 601 euro; 1. aksezita 300 euro; 2. aksezita 300 euro. 14 urtetik behera 1. eta 2. saria: pintura-materiala. Gaia: Mendaroko edozein alderdi, teknika eta formatu librean. Euskarriak udaletxean zigilatu behar dira 9etaik-10etara. Informazioa: 943 033282

## LANA

**APAREJADORE EDO ARKITEKTO TEKNIKO BAT IBARRAKO UDALERAKO**

Baldintzak: Aparejadore edo Arkitektu Tekniko izatea. 3. Hizkuntza-Eskakizuna. Epea: urriak 10. Informazioa: 943 671138

**ZEREGIN ANITZETARAKO LANGILE BAT ALKIZAN**

Alkizako Udalak zeregin anitzetarako langile bat behar du. Baldintzak: Eskola ziurtagiria edukitzea. Epea: urriak 3. Informazioa: 943 690235

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461

Asteartetik ostiralera
16:00-19:00

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]




25 igandea EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 23 | Yudego | Yudego |
| 24 | Bidasolo | Zabaleta |
| 25 | **Zabaleta** | **Zabaleta** |
| 26 | Etxeberria *(Errosario)* | Etxeberria |
| 27 | Ibañez | Ibañez |
| 28 | Bidasolo | Bidasolo |
| 29 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 30 | Fernandez | Fernandez |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
*Pesa: 902 10 12 10*

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## AIASTIA (SAN MIGEL) BAILARAKO JAIAK

**Irailak 23 (barixakua)**
18:30 Kanpai jotzea jaien hasiera adieraziz
19:00 Poteoa Bizikletan
21:30 Gazte Afaria
24:00 Disko Festa
02:30 "Streaptease"a

**Irailak 24 (zapatua)**
17:00 Artzai Txakur Txapelketa
Euskal Herriko Arraza Libreko Finala
22:30 Haritrz EDTren emanaldia
Ondoren, Erromeria "Luhartz" taldearekin
01:00 Bolo Txapelketa

**Irailak 25 (domekia)**
11:30 Meza
Ondoren, Sorkunde eta Aintzane trikitilariak
17:00 Idi-Demak. Garro (Etxebarria), Artadialde (Berriatua) eta Erlete (Itziar)

**Irailak 29 (eguena)**
San Migel Eguna
Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak
13:00 Auzoko bikoteen arteko XXII. Pilota Txapelketa
20:30 Auzotarren afaria
Ondoren, Gardoki-rekin erromeria

## SINOPSIAK

**«Semen: una historia**



## [ 23 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2-6 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako programa
Plaza Handian
(Euria egingo balu, bertan behera geratuko litzateke)
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

## [ 24 ZAPATUA ]

**10:00 URTIAGAKO HAITZULORA IRTEERA**
Irteera: Santa Klara kaleko lokalean
Antlatzailea: Leizarpe Elkartea
**11:00 ELGOIBARKO TXANKAKUA MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEAREN V. FERIA**
Plaza Handian
Produktuen erakusketa eta salmenta; haur parkea eta tren txu-txua
14:00ak arte
**11:00 ALZHEIMERRAREN INGURUKO MAHAI INFORMATIBOAK**
King-kong eta Plaza Handian
Antolatzailea: Afagi (Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senideen elkartea)
**13:30 TXANKAKUAKO ZOZKETA**
Plaza Handian

## [ 25 DOMEKIA ]

**10:00 DEBARROKO HAURRENTZAKO XXXI. PERRETXIKO LEHIAKETA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Karakate Mikologi Elkartea
**10:20 BIIZKLETA IRTEERA**
Mallabiatik aterako da (9:30)
Mugikortasun astearen barruko ekintza
Partaidetza borondatezkoa

## [ 30 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2-6 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzendutako programa
Plaza Handian
(Euria egingo balu, bertan behera geratuko litzateke)
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«Semen: una historia de amor»**
23, barixakua: 22:15
24, zapatua: 19:30-22:15
25, domekia: 19:30-22:15
26, astelehena: 22:15
**«Super Size Me» (Zine Kluba)**
29, eguena: 22:15
**«La Morada del miedo»**
30 , barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA

**«Obaba»**
23, barixakua: 19:30-22:15
24, zapatua: 17:00-19:30-22:15
25, domekia: 17:00-19:30-22:15
26, astelehena: 19:30-22:15
27, martitzena: 19:30-22:15
28, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO

**«Los guardianes de la noche»**
23, barixakua: 19:30-22:15
24, zapatua: 17:00-19:30-22:15
25, domekia: 17:00-19:30-22:15
26, astelehena: 19:30-22:15
27, martitzena: 19:30-22:15
28, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

### de amor»

**Zuzendaria: Daniela Fejerman eta Inés París**
**Antzezleak: Ernesto Alterio Leticia Dolera, Héctor Alterio.**
Serafin (Ernesto Alterio), arrazoiaren mugetatik ateratzen ez den biologoa. Ariadna (Leticia Dolera) mundua magiak eta pasioak bakarrik mugi arazi dezaketela sinistuta dagoen trapezista. Berak lan egiten duen ospitalean hazi-jartze tratamendu bat egiten ari dela ezagutu eta maiteminduko da Serafin Ariadnaz. Lehen hiru saiakerek huts egin ostean, bere hazia erabiltzea erabakiko du Serafinek inori ezer esan gabe. Horrelakoa da maitasuna.

### «Super Size me» (Z.K.)




**Zuzendaria: Morgan Spurlock.**
**Antzezleak: Morgan Spurlock, Dr. Daryl Isaacs.**
"Fast Food" kulturak Ipar Ameriketako erdi mailako biztanlerian eragiten dituen osasun arazoak salatzen ditu dokumental honek, era berean Mc Donald's kritikatuz. Zuzendariak berak esperimentu bitxia eraman zuen aurrera; hilabete batez Mc Donald's jatetxeetako menuak soilik janez biziraun zuen. Esperimentu barregarri gisa hasi zena, osasun arazo larri bihurtu zen protagonistarentzat. 2004ko Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren Zabaltegi Atalean aurkeztu zuten film hau.



**1952**. urteko erretratu zahar hau **Jose Gabiolak** laga digu. Urte honetan Club Deportivo Elgoibar eta Fleje taldeak ejerzizio espiritualak egin zituzten Donostiako Villa Santa Teresa komentuan. Garai hartan oso ohikoa zen ejerzizio espiritualak egitea. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak: (Argazkian ageri diren ezezagunak egun hartan elkartu ziren legazpiar batzuk direla esan digute).

Goian, ezkerretik eskumara: **Ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Pedro Jauregi, Jose Mari Ibarluzea (†), Luis Maria Ruiz de Gauna, ezezaguna, Gabriel Gabilondo (†) eta Juan Jose Arrillaga.**

2. ilaran, ezkerretik eskumara: **Ezezaguna, ezezaguna, Jose Odriozola, ezezaguna, ezezaguna, Jose Riaño, Jose Gabiola, Migel Artola, Ladis Irureta, Zubiaurre "Koblet", Jesus Rementeria, Eduardo Irusta (†), ezezaguna.**

3. ilaran, ezkerretik eskumara: **Felix Aiesta, Gerardo Garate (†), Jesus Egaña (†), Anjel Jauregi, Manolo Riaño (†), Eulogio Etxeberria, Ramon Arozena (†), ezezaguna, Jose Luis Ansola, ezezaguna.**

4. ilaran, ezkerretik eskumara: **Antonio Unzueta (†), Pedro Gallastegi (†), Pedro Gabilondo, Santa Teresako bi apaiz, Julian San Martin (†), Patxi Gabiola (†) eta Pako Mugerza (†).**

---



**ESKERTZA**

2005eko abuztuaren 7an hil zen
*Dori Etxarri Fernandez*en senarrak, seme-alabek eta
gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako
doluminak. Bere arimaren alde meza izango da,
larunbata, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# AEK, tu transporte al Euskara



Euskara hizkuntza oso desberdina, berezia eta polita da: arrazoi hauek nahikoa dira euskara ikasteko. Gainera, ez da edozein hizkuntza, geurea da eta gu jende gutxi gara. Horregatik altxor bat bezala zaindu behar dugu, eta zaintzeko, ikasi egin behar dugu.

ASCEN

## ¡Reserva tu plaza!

**Udalaren laguntzaz:**

- Langabetuek, gurasoek eta ikasleek matrikula erdia
- Beka sistema

Elgoibarko aek euskaltegia
Plaza Txikia, 3 - Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

aek



# ASKETA ERREFORMAK, S.L.

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 26
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net

**Espezialistak gara fatxada eta teilatuak errehabilitatzen**
**Gehienezko kalitatea prezio onenean**

**10 urteko bermea gure lan guztietan!**

Astillero kalea, 3
DEBA
Valentine-n
Balmic
erabiliz
margotua



Erreforma egin bitartean



Valentine

**Fatxaden linean liderrak**

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**

Jaietan ondo pasatu eta mahaian gozatu!




Zatoz San Migel jaietarako



prestatu dugun
menu
berezia
dastatzera!

Belaustegi
Baserria
JATETXEA

San Migel gaina • 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 743 102 • Faxa: 943 743 641
Erreserbak 943 74 31 02 telefonoan